

Matrimoniño baten ipuiña

(Berbetan)

Matrimonio batek euki eben 3 seme. Bat izen zan abadia, bestia beterinarioa, da bestia medikue. Da esan dotsien, da Joan zien gabonak pasetan aitaz da amaz. Da esan dotsen:

-Ai guk zenbat bier ein dun, da oin bebai, da onek ze ondo bizi dien.

- Ni neu ez beintzet - esan dotsen medikuek.

- Da zer ba?

-Nau lagunekin kartetan da, ezdait nor gaixotu dala, ta Joan ein bier. Nau lo, ta dauen lekutik abiseu da banoa. Da ni bizi naz, zuek baiño asko txarrau. Au bai biziko da ondo!

- Ni? Au baiño asko txarrau!

- Zer ba?

- Zer ba? Berbarik eiten ez dauenaz, ia non dekon min igerri eziñik. Berbarik bez deu eiten, da ikutu-ikutu, da ezin kalkuleu, neuk igerri bier non dekon miñe.

- Ba ez zara ondo bizi zu! Bai, baia abadia bai. Onek onek saldia ona eukiten deu da, abadia biziko da.

- Ni !! Orrek bixok baiño asko txarrau!!!

- Zer ba? -Neuk sinistuten ez doana, beste batzuei sinistuasoten.